

# Austria bat dator Haider «neonazia» ez dela azaltzean

*Hango alderdi politikoek «kanpoko prentsaren histeria» gaitzetsi dute*

Erredakzioa / Donostia

Joerg Haider-ek aurreko igandeko hauteskundeetan izandako arrakastak hautsak harrotzen segitzen du Austriari. FPOE eskuin-muturreko alderdiak bigarren postua lortu zuen boz horietan xenofobian oinarritutako kanpaina egin eta gero. Alderdi guztiak, hala ere, Haider «eskuineko populistatzat» jo dute; ez, ordea, «neonazitzat».


AUSTRIAKO politikariek bat egin dute «kanpoko prentsaren histeria» salatu eta Joerg Haider eskuin muturreko politikaria neonazia ez dela azaltzean. Eskuin zein ezkerreko taldeak, ñabardurak ñabardura, aho batez mintzatu dira euren herriaren irudia Europaren aurrean garbitzeko.

Viktor Klima kantzilerra izan da lehena Haiderren aukera hobetsi duten herritarrek defendatzen. «FPOEri botoa eman dioten milioi bat hautesle baino gehiago ez dira naziak», esan zuen atzo Vienan SPOEko buruzagi eta orain arteko gobernuburuak.

Berdin antzean mintzatu da Peter Kostelka sozialdemokraten talde parlamentarioko burua: «Atzerrian izandako erreakzioak ez dira fede onekoak. Haiderrek adierazpen ergelak egin ditu erregi-

men naziari buruz, baina ez da neonazia. Eskuineko populista da Haider, familian aurrekari naziak dituena». Kostelkaren arabera, Haider «neonazia izan zitekeen 1938. urtean, baina denborak aldatu egin dira, eta bere lehen helburua Austriari boterera ailegatzea da. Hau eginezina litzaioke neonazi huts bati».

Igandeko hauteskundeetan SPOE, Klima eta Kaselkaren alderdia, lehen postuan kokatu zen, boto guztien %33,4rekin. Sozialdemokratek sei aulki galdu zituzten parlamentuan, eta ordura arte bigarrena zen Alderdi Popularrak (OeVP) kontserbadore-



RUDI BLAHA / AP

FPOEko buruzagi Joerg Haider, EEBBetako ABC telebistako kazetari James Blue agurtzen Vienan.

ak hirugarren lekua lortu zuen. SPOEek ez du Haiderrekin gobernua osatu nahi eta OeV-Prekin zuen gobernu koalizioari eustearen aldekoa da. Hori hala izanda ere, SPOEek ez du Haiderren balio politikoa guztiz baztertu, Kostelkaren hitzetan: «Haider gizon argia da, eta gutxienez botoen %15 lortuko litzuzke erraz asko Europako edozein demokraziatan».

Austriako Berdeen buru Alexander Van der Bellen

bera ere zorrotz aritu da Haiderren arrakastari behatu eta Austriako bizilagunen laurdenak teoria neonaziekin bat datozela esan dutenen kontra.

Van der Bellenek «kanpoko prentsaren histeria» salatu egin du, eta jarrera horrek bat baino gehiago harritu du Austriari, Berdeen jarrera Joerg Haiderren aurka beste edozein alderdi politikorena baino nabarmenagoa izan baita beti.

OeVPko idazkari nagusi Maria Rauch Kallatek, bestalde, Austria demokrazia dela agertu du, «non %70etik gora herritarrek Haiderri botoa eman ez dioten».

## Waldheim aferaren mamua

Austriako prentsak Haiderren garaipenak Waldheim aferaren errepikapena eragingo ote duen beldurra agertu du. 1986-92. urteak bitartean Austria isolatuta egon zen nazioarteko politikagintzan Kurt Waldheim bere lehendakariaren iraganagatik. Presidentea bigarren mundu gerran Wehrmacht alemaniarreko ofiziala izan zela jakin zen, eta horrek eskandalo itzela sortu zuen.

Orain, Haiderren arrakastaren ondorioz Austria antzeko egoerara bihurtu litekeela uste dute zenbaitek.



ALASTAIR GRANT / AP

**26 hildako Londresko tren talka ikaragarrian.** Bi trenek elkar jo zuten atzo goizean Londresen, Paddington geltokitik hurbil. Atzo arratsaldean hogeita sei ziren ezbeharrean hildakoak, baina kopurua igo daiteke, 150 zaurituen artean 25 larri daudelako. Istripuak berriro piztu du Erresuma Batuko trenbideei buruzko polemika, duela bi urte beste zazpi lagun zendu baitziren inguru horretan bertan. Biktimen abokatuen arabera, trenbideak eta konpainiak guztiz pribatu izateak okertu egin du haien egoera, eta istripu txikiak eta atzerapenak ohikoak bihurtu dira.



ADRIAN DENNIS / EPA